

## **VI. Eranskina. Laguntza eskaera aurkezten den unean aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa**

Eskaera normalizatuen eredua (I-V eranskinak).

Enpresari buruzko dokumentazioa:

- Eskatzaileapertsona fisikoa bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo baliokidea.

- Pertsona juridikoen kasuan: Identifikazio Fiskaleko Txartelaren PDFa, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta eskatzailearenordezkaritza ahalmenekin batera. Enpresaren edo erakundearen eraketa eskrituren PDFa, haren ondorengo aldaketak eta kasuan kasuko erregistroetako inskripzioak jasota.

- Nortasun juridiko propiorik gabeko ondasun erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, bazkideen NANen PDFez gain, Foru Ogasunak zigitatutako kontratu pribatua eta enpresaren Identifikazio Fiskaleko Txartela aurkeztuko dira.

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren alten eta bajen ziurtagiria, Foru Ogasunak igorrita.

- Langile autonomoen araubide berezian edo Gizarteko Segurantzako araubide egokian alta eman izanaren kopia, jardueraren titularrei edo laguntza eskatu duen erakundeko kideei dagokiena.

- Eskaera aurkeztu aurreko urtean zehar egondako batez besteko plantillari buruz Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorritako ziurtagiria (erakunde eskatzailearen kotizazio kontu guztiak barne). Alta ondoren eman bada, Gizarte Segurantzaren alta eman zenetik eskaeraren datara arteko ziurtagiria. Data horien artean ez badago langilerik kontratatuta, enpresariaren inskripziorik ez dagoela dioen txostena edo kotizazio kontuaren kodeari buruzko egoeraren txostena aurkeztu beharko da.

Amurrion ekonomia zirkularra, konponketa eta/edo autokonponketa sustatzen duen negozio lerro berri bati buruzko dokumentazioa.

- Enpresaren jarduera memoria (sustatzaileak, sektorea, ibilbidea eta abar) eta diruz lagundu nahi diren jardueren memoria (jardueren premia, ekonomia zirkularreko jarduera lerro berri baten ezarpenarekiko lotura, eta abar), jarduera hori martxan jarri dela egiaztatzen duten ebidentziak jasota (Ekonomia Jardueren gaineko Zergako alta berria, publizitatea eta abar).

- Diruz lagundu diren inbertsio eta gastuen jatorrizko fakturak.

- Ordainketaren ziurtagiriak. Ezingo da esku dirutan egindako ordainketarik onartu. Ez da onartuko, era berean, banku ordainagiririk, baldin eta ordainagiri horrek ez baditu argi eta garbi jasotzen enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola. Eperako erosketak izanez gero, egindako ordainketak bakarrik onartuko dira, horiei dagokien egiaztatzea aurkeztuta.